



Arartekoaren 2014R-93-14 ebazpena, 2014ko urriaren 23koa. Horren bidez, Abadiñoako Udalari gomendatu zaio zenbait baserriren saneamendu desegokiak eragindako osasungarritasunik ezaren aurrean bidezkoak diren egikaritze-aginduak eman ditzan.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...)k egindako kexa jaso dugu, Abadiñoako Udalak ez duelako erantzunik eman ezta jarduketarik bideratu ere baserri jakin batzuetako putzu septikoen egokitzapen faltaren ondoriozko osasungarritasunik eza dela-eta.

Pertsona horrek azaldu digu (...) baserrian bizi dela eta bere baserriko ur zikinak husteko putzu septikoak dituela. Hala ere, haren lursailetan gorago kokatutako beste baserri batzuei dagozkien ur zikinak azaleratzen dira, eta horrek osasungarritasun-arazo larri bat sortzen du.

Dirudenez, udalak esan dio ezin duela esku hartu lursail pribatu bat delako. Dena den, interesdunak argudiatu du gune horretatik errekasto bat iragaten dela eta jende asko paseatzen dela; beraz, haren ustez, udalak esku hartu beharko luke.

2. Erreklamazioan deskribatutako kontuak baloratu ostean, udalari informazioa eskatu genion salatutako gaiari buruz bideratu duen jarduketaren berri izateko.

Horri dagokionez, gure komunikazioan aurreratu genuenez, udalen eskumena da jabeei beren lursailak eta eraikinak osasungarritasun, segurtasun eta apaingarriko egoera egokietan mantentzea. Hortaz, uste dugu isurketak eragiten dituzten baserriei beharrezkoak diren jarduketak eskatzeko ahalmena duela.

3. Bere erantzunean, Abadiñoako Udaleko alkate-udalburuak eskatu genuen informazioa bidali digu eta arkitekto aholkulariaren txosten bat, 2014ko ekainaren 25ekoa, eman digu. Horrela, txostenak informazio hau eman zuen:

El barrio de (...) donde se sitúan los caseríos de referencia está situado en un suelo No Urbanizable, no existiendo red pública de saneamiento.

El saneamiento de los caseríos correspondientes a los n^o (...) de este barrio, que serían los caseríos del entorno del n^o (...), se conducen por unos tubos existentes junto al camino, hasta una zanja, que discurriendo por terrenos privados, conduce tanto estas aguas, como la escorrentía de los terrenos, vertiente abajo.



*El Caserío n° (...), que sería el domicilio de la denunciante, inicialmente vertía también las efluentes de su saneamiento a la **misma zanja**, si bien en estos momentos, tras las obras de remodelación efectuadas en este caserío, la salida del pozo séptico se condujo a otra vaguada, manteniéndose sin embargo la conducción de las aguas pluviales de este inmueble, a la mencionada zanja.*

De los datos municipales, salvo el caserío sito en el n° (...), los otros caseríos cuyos saneamientos vierten a la zanja disponen de pozo séptico, por lo que los efluentes que salen de dichos pozos sépticos se supone que son líquidos.

El caserío sito en el n° (...) no consta que disponga de un pozo séptico, por lo que el saneamiento podría arrastrar restos más sólidos. El pozo séptico del caserío n° (...), vertería a otra vaguada, y en principio a la zanja de referencia solamente se verterían aguas pluviales de ese caserío, si bien puede que en algún caso las mismas vengán mezcladas con fecales.

La zanja que en el tramo próximo al caserío sito en el n° (...), al otro lado del camino, tiene poca pendiente y tampoco es objeto de una limpieza frecuente, (según uno de los habitantes del caserío n° (...), hace dos años por problemas de depósitos en la zanja, y olores, procedió a la limpieza de la zanja con una retroexcavadora, pero posteriormente no se ha vuelto a limpiar).

Esta falta de pendiente, suelo de tierra, y la propia caída de tierras de los bordes de la zanja, hace que junto con los propios efluentes del saneamiento que vierten a la misma, originen que en los primeros metros a la salida de la zanja se vaya acumulando la porquería y además de producir malos olores.

al parecer con fuertes lluvias el agua no circula lo suficientemente deprisa por la zanja, (debido a la porquería), y en algunos casos en parte desbordaría por la tubería de pluviales del Caserío sito en el n° (...), que sería el que tiene la cota más baja, y que parecen ser los afloramientos en sus terrenos, a que hace referencia el escrito del Ararteko.

Con independencia de que se dote de pozo séptico al caserío que no tiene, y se compruebe que los demás caseríos tienen su red perfectamente separativa, y que a la salida de los pozos sépticos, que vierten a esta zanja, se coloquen filtros que garanticen que únicamente salen líquidos, dadas las características de la zanja, si la misma no es objeto de una limpieza muy frecuente, en la misma se depositaran restos y tierras que terminarán embalsando las aguas.

Una forma de paliar este problema, consistiría en prolongar la zona entubada por la zanja, colocando las correspondientes arquetas de registro,



hasta un punto en el que el terreno alcance la pendiente suficiente para permitir la circulación de las aguas, sin estos problemas de encharcamiento.

El tubo al tener las paredes más lisas que la tierra, permite la circulación del agua con pendientes menores que una zanja de tierra abierta. Si bien la asesoría jurídica municipal dictaminará a quien le correspondería realizar esta obra, si se trata de caseríos y terrenos particulares, en un suelo No Urbanizable.

Otra alternativa consistiría en dotar al barrio de (...) de una red de saneamiento público, que terminase en una planta compacta de depuración, ya que canalizarla hasta los colectores municipales requeriría unos desarrollos de red muy importantes.

En todo caso de los estudios llevados a cabo por el Ayuntamiento, dadas las características del barrio de (...), que tiene dos cuencas, así como su extensión, requeriría dividirlo en tres zonas, cada una con su nueva red de saneamiento y equipo depurador, siendo el corte de una de estas zonas, en concreto la que corresponde a los caseríos objeto de este informe de 376.971,07€, en precios del año 2003, que requerirían actualizarse al año 2014, dado el incremento de los precios de la construcción, que se ha producido en estos años."

Gogoetak

1. Udalari gure informazio-eskaeran aurreratu genion bezala, toki-erakundeek partikularrak jardutera behartzeko eskumenak dauzkate, eta esku-hartze horren oinarria interes publikoa da, jabeen higiezinak segurtasun- eta osasungarritasun-baldintza egokietan kontserbatzeko eginbeharra betearazi behar baitaie.

Horrela zehazten du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (LHL) 199. artikulua, honakoa baitaio:

"Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."

Hondatuta edo eraginkortasunez erabiltzeko baldintza txarretan dauden eraikinak eta eraikuntzak kontserbatzeko beharrezko diren obrak egikaritzeko aginduak dira eginbehar hori betearazteko legez xedatutako tresna. Egikaritze-agindu horiek betearazi beharrekoak izango dira, eta, justifikaziorik gabe urratzen badira, administrazio jarduleak, beste neurrien artean, egikaritze



subsidiarioa bideratu ahal izango du, eginbeharra duenaren kontura, kontserbazio normalaren mugara arte; horrez gain, hertsatze-isunak jarri ahal izango ditu (LHLren 203. artikulua).

2. Egikaritze-aginduen edukia zehaztu ahal izateko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak saneamendu partikularreko sareen eta isurketa-sareen arloan daukan arauketa aintzat hartu beharko da, Abadiñoko Udala partzuergo horren barruan baitago.

Isurketen Araudiak, 4. artikuluan, erabiltzaile guztiei herriko estolderia-sarea erabiltzea ezartzen die. Artikulu horrek honakoa ezartzen du:

“4art. –Herriko estolderia sarearen erabilera

Hondakin uren hustuketarako herriko sarearen erabilera derrigorrezkoa izango da A eta B motetako erabiltzaileentzat delako erabiltzaile horien establezimendua hurbilen dagoen herriko estolderiatik 200 metro baino hurbilago dagoenean. Erabiltzaile horientzat beharrezko aurrikuspenak hartuko dira eta hondakin uren isurketa aipatu estolderia sarean egin dadin beharrezko obrak burutuko dira.

(...)

C eta D motetako erabiltzaileek, eta, edozein kasutan eta A eta B¹ motetakoek beren establezimendua hurbilen dagoen herriko estolderiatik 200 metrora baino gehiago daudenean, honako hauen artean hautatu ahal izango dute:

–Herriko estolderia sarearen erabilera, beti ere honako araudi honetan ezarri denarekin bat eta beharrezkoak diren obra eta instalazioak bere pentsura egin eta gero.

–Isurketa zuzenean egitea herriko estolderiatik kanpo; horretarako isurketari ekiteko bidezko haizugoa eskuratu beharko da eskumendun agintaritzarengandik eta Partzuergoarengandik honako araudi honen 9. artikulua eta baterakoen terminoetarik aske geratzekoa.”

Bestalde, araudiaren 9. artikulua zehazten duenez, sortutako hondakin-urak herriko estolderia-sarera isuri ezin ez badira, interesdunak herriko estolderia-sarera isurketak egiteko bidezko lekapena eskatu beharko du; eskabide horrekin batera herriko estolderia-sarera isurketa egiteko ezintasuna frogatuko duen azterlana aurkeztu beharko du, eta, hala denean, eskumendun agintaritzak eskatu dion instalazioen egitasmoa.

¹ Etxebizitzan erabiltzaileak A motako erabiltzaileak dira.



Zentzu horretan, jabari publiko hidraulikorako isurketei buruz dagoen arauketa aintzat hartu beharko da. Arauketa horrek, oro har, urak kutsa ditzaketen urak eta hondakin-produktuak zuzenean edo zeharka isurtzea debekatzen du, dagokion administrazio-baimena badauka izan ezik². Ondorio horietarako, dagokion eskaera izapidetu beharko da Uraren Euskal Agentzian (URA), dauden arazketa- eta hustuketa-instalazioen deskribapena emanez, legeztatze helburuarekin.

3. Aipatutako araudia ikusita, Abadiñoako Udalak tartean dauden baserrietako bakoitzari beharrezko egikaritze-aginduak eman behar dizkio sortutako osasungarritasun ezeko fokuetarako irtenbide bat aurkitze aldera; izan ere, udalak diru-laguntzez edo araututa dituen bestelako sustapen-neurriez laguntzeari kalterik egin gabe, etxebizitzak lurzoru urbanizaezinean daudenez, baserrien titularren eginbeharra da beren etxebizitzetako saneamendu-sistema konpontzea.

Egikaritze-aginduek ur beltzek sortutako osasungarritasun eza kentzeko hartu beharreko neurriak zehaztu beharko lituzkete, hala balegokio egin beharreko instalazioen proiektuak barne. Halaber, Uraren Euskal Agentziaren aurrean dagokion isurketa-baimena izapidetzeko eginbeharra azaldu beharko lukete, lehen aipatu dugun uren arloko araudiarekin bat etorriz.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Abadiñoako Udalari:

GOMENDIOA

1. Dagokion izapidetzea baino lehen, tartean dauden baserrietako bakoitzari egikaritze-agindu egokiak eman diezazkion, honako neurrietako bat edo batzuk har ditzaten:
 - Hondakin-urak husteko saneamendu-instalazio egokiak egikaritzea.
 - Dauden putzu septikoen funtzionamendu egokia berrikustea eta, hala badagokio, egokiak diren mantentze-neurriak hartzea.
 - Isurketen osasungarritasunik ezeko fokuek kentzeko egokiak diren gainerako neurri osagarriak.

² Uztailaren 20ko [1/2001 Legegintzako Errege Dekretua](#), Uren Legearen testuategina onartzen duena. Jabari Publiko Hidraulikoaren araudia, apirilaren 11ko [849/1986 Errege Dekretuak](#) onartua, maiatzaren 23ko [606/2003 Errege Dekretuak](#) aldatua.

Ekainaren 2ko MAM 1873/2004 Agindua, isurketak adierazteko eredu ofizialak onartzen dituena eta isurketak baimentzeari eta isurketak kontrolatzeko kanona kitatzeari buruzko hainbat alderdi garatzen dituena. Abenduaren 7ko 1620/2007 Errege Dekretua, ur araztuak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duena.



2. Hala badagokio, egikaritze-aginduak ukitutako titularrei jakinarazi beharko die beharrezko obrak egikaritu baino lehen Uraren Euskal Agentzian isurketak baimentzeko edo baimena berrikusteko eskaera izapidetu beharko dutela.
3. Udalak Uraren Euskal Agentziari osasungarritasun ezeko egoeraren eta emandako egikaritze-aginduen berri eman diezaiola, isurketen jarraipena egiteko eta horiek kontrolatzeko.